

ERANSKINEN AURKIBIDEA

ERANSKINEN AURKIBIDEA	737
GERLARI BURUZKOAK	739
Gerlaren kronologia.....	739
<i>Eskualduna</i> -ko idazleen erregimentuak.....	759
<i>Eskualduna</i> -ko idazleen matrikula erregistroak	766
Euskaldunen monumentua.....	771
ZENTSURARI BURUZKOAK	773
Zentsuratutako zati bat	773
Baionako zentsura batzordeko kideen zerrenda.....	774
<i>Eskualduna</i> -z arduratzen diren zentsuratzailleak.....	775
Zentsuratu gabeko artikulua bati buruzko istilua.....	776
ESKUALDUNA-RI BURUZKOAK	779
Eskualduna-ren azala.....	779
Ipar Euskal Herriko egunkarien fitxa.....	780

GERLARI BURUZKOAK

Gerlaren kronologia

1914

- **Ekainaren 28a** : Austriako artxiduke Franz Ferdinand erail zuten Sarajevon. Austria-Hungariako tronuaren oinordekoa Sarajevo Bosnia-Herzegovinako hiriburura joan zen, Serbiaren besta nazionalaren egunean. Serbiak eremu hura 1908an galdu zuen, eta Austriak hartu zuen. Ikasle serbiar batek Franz Ferdinand eta haren emazte Sophie Chotek txekiarra tiroz hil zituen. Hura izan zen Lehen Gerla Mundiala piztu zuen pindarra.
- **Uztailaren 23a**: Austria-Hungariak ultimatuma ezarri zion Serbiari. Hain zuzen, Austria-Hungariak Serbiako nazionalistei leporatzen zien Sarajevoko atentatua, eta ez bide zuen nahi menpe zituen beste herrialde txikiak, Serbiako nazionalisten gisan, inperioaren kontra oldar zitezen. Beraz, Serbiako oldarra moztu nahi zuen. Uztailaren 5ean, Alemaniaren sostengu osoa lorturik, 23an ultimatuma ezarri zion Serbiari. Serbiak baldintza guztiak onartu zituen, salbu atentatuaren inkestaren ardura Austriak har zezan, hori Serbiako estatuaren independentziaren urratze bat zelakoan.
- **Uztailaren 28a**: Austria-Hungariak gerla deklaratu zion Serbiari, pentsatuz Errusia ez zela haren lagun Serbiaren laguntzera ausartuko, armada ahula zuelakoan. Austriaren artilleriak Belgradi eraso egin zion.
- **Uztailaren 30a**: Mobilizazio nagusia Errusian. 30etik 31rako gauean, mobilizazioa izan zen Austria-Hungarian.

- **Uztailaren 31:** Setio egoera Alemanian. Frantzian, aldiz, Jean-Jaurès diputatu sozialista eta bakezalea eraila zuten. Gertakari hark, sinbolikoki, Frantzia gerlan sartzea markatu zuen.
- **Agorrilaren 1a: Mobilizazio nagusia Alemanian eta Frantzian. Alemaniak gerla deklaratu zion Errusiari.**
- **Agorrilaren 2a:** Alemaniako tropak Belgikan sartu ziren.
- **Agorrilaren 3a: Alemaniak gerla deklaratu zion Frantziari,** Serbiaren alde jarri zelako.
- **Agorrilaren 4a:** Alemaniak berehala hasi zuen ofentsiba eta Belgikako lurak hartu zituen, Belgikaren neutraltasuna errespetatu gabe. Alemaniako tropek Meuse ibaia zeharkatu zuten Liège parean. Ingalaterrak segurtatua zuen Belgikaren neutraltasuna, eta hori ez zuen onartu. Horregatik, Erresuma Batuak gerla deklaratu zion Alemaniari.
- **Agorrilaren 5a:** Montenegrok gerla deklaratu zion Austria-Hungariari.
- **Agorrilaren 6a:** Austria-Hungariak gerla deklaratu zion Errusiari.
- **Agorrilaren 7a:** Frantziako armadak ofentsiba hasi zuen Alsazian, eta Mulhouse hiria hartu zuen, nahiz eta harritu ziren hirian ez zelako erresistentziarik izan. Soldadu alemanak Hardt oihanean gordeak ziren, frantsesak inguratzeko mehatxua eginez. Joffre jeneralak tropak prest ezarriak zituen, hala nola I. armada Belfort eta Epinal artean, II. armada Toul, Nancy eta Lunéville arteko eskualdean, III. armada Verdun eta Saint-Mihiel artean, giblean zeukalarik IV. armada, eta V. Armada Ardennes hegoaldean. Memento hartan, Euskal Herriko edota euskaldunak zituzten erregimentuak biltzen zituen 18. Armada Gorputza, II. armadaren baitan zegoen, hala nola Toul aldean. Baionako 49. erregimentua, adibidez, Toul-era abiatu zen agorrilaren 7an. Bazen beste armada bat, “Alsazia Armada” deitua, Pau jeneralak manatua, eta hura Mulhouse hirian sartu zen, egun hartan berean. Garaipen hari karga sinboliko handia eman zioten, 44 urte bazuelako Alsazia galdu zutela.
- **Agorrilaren 9a:** Alemanek Mulhouse berriz hartu zuten. Frantsesek une labur batez berreskuratu zuten, baina agorrilaren 19an alemanek berriz ere berenganatu zuten eta oraino beste zenbait urtez atxiki.
- **Agorrilaren 12a:** Frantziak eta Erresuma Batuak gerla deklaratu zioten Austria-Hungariari.

- **Agorrilaren 14:** Frantziako armadaren bigarren ofentsiba Alsazian. Than hartu zuten. Lorraine eta Vosges eskualdeetako ofentsiba ere hasi zuten.
- **Agorrilaren 16a:** Alemanek Liège (Belgika) hartu zuten.
- **Agorrilaren 16-24a:** Tser-ko guduan, serbiarrak austriarrei nagusitu zitzaizkien.
- **Agorrilaren 18-21a:** Errusiarrek Gumbinnen-eko gudua abiatu zuten, Prusiaren ekialdeko mugan, bi muturretatik, hala nola iparraldetik eta hegoaldeetik. Masuriako lakuetako borrokak hasi ziren. Errusiarrak alemanei nagusitu zitzaizkien.
- **Agorrilaren 20a:** Morhangeko (Moselle) gudua. Alemanek Brusela hartu zuten.
- **Agorrilaren 22a:** Alemanak nagusitu ziren Lorraine eskualdean.
- **Agorrilaren 21-24a: Charleroiko gudua. Frantsesek galdu zuten.** V. armadaren ardura zen Sambre ibaia zeharkatzea, Charleroira (Belgika) sartzeko, Lanrezac jenerala buru zutela. Baina alemanek Sambre ibaia zeharkatu zuten, eta frantsesek gibelera joan behar izan zuten, ia Pariseraino. Joffre jeneralak Poincaré presidenteari erran zion ezin zutela iharduki, frantsesek ez zutela ofentsibarako gaitasunik erakutsi, eta iraun behar zutela, etsaia higarazteko. Alemanek 30 dibisio zituzten eta frantsesek 19 baizik ez. Horregatik, Joffrek gibelatze orokor bat egitea erabaki zuen. Euskaldunek ere parte hartu zuten bataila hartan, agorrilaren 19an, 18. Armada Gorputza V. armadan sartu baitzen. Gudu hartan, euskaldun anitz hil zen.
- **Agorrilaren 23a:** Ingelesak Mons-eko (Belgika) gudua galdu zuten.
- **Agorrilaren 25a:** Gallieni gobernadoreak berri faltsuekin gelditzea erabaki zuen. Egun hartako agiri bat zabaldu zuen eta frantsesek jakin zuten Frantziako armada Somme ibaitik Vosges mendira gibelatu zirela. Biharamunean jakin zuten Paris mehatxatua zela.
- **Agorrilaren 26a:** Frantziak Batasun sakratuko gobernua egin zuen, René Viviani Kontseiluko presidentea (ezkerrekoa) buru zuela.
- **Agorrilaren 27-30:** Tannenberg-eko (oraingo Polonian) gudua. Gumbinnen-en errusiarrak nagusitu ondoan, buruzagien arteko ezinikusien ondorioz, alemanek errusiarren ofentsiba geldiaraztea lortu zuten, eta Errusiak ia armada oso bat galdu zuten.
- **Agorrilaren 30a: Joffrek Seine ibaira gibelatzeko agindua eman zuen.** Helburua zen Alemaniako armadak Frantziako armada ez inguratzea.

- **Irailaren 2a:** Frantziako gobernuak Paris utzi eta Bordelen hartu zuen egoitza. Paris ia-ia Alemanen eskuetan zegoen. Alemanek Soissons hiria hartua zuten. Frantsesak Parisen defentsa prestatzen hasi ziren, Galliani jeneralaren agintepean.
- **Irailaren 3a:** Errusiarrek austriarrei Lemberg, Galitziako (Polonia) hiriburua, hartu zieten.
- **Irailaren 5a:** Ourcqeko gudua. Frantziako Ourcq ibaiko gudua abiatu zuen VI. armadak, Trilport eta Meaux parean (Seine-et-Marne).
- **Irailaren 6-13a: Marneko lehenbiziko gudua.** Frantziako VI. armadaren ofentsibak Alemaniako armadan sortu ziloaz baliatuz, Franchet d'Esperey-k manatzen zuen Frantziako V. armadak aitzinamendu handi bat egin zuen Marne ibaiaren inguruetan, britainiarren laguntzarekin. Alemanek ezin izan zuten Parisera sartu, eta horrela beren planak huts egin zuen, hala nola mendebaldeko fronteko gerla laburra izatea eta segidan Errusiari lotzea. Ondorioz, gibelera egin zuten irailaren 10ean, eta Aisne ibaiaren inguruan finkatu ziren. Orduan bururatu zen mugimendu gerla, eta posizio gerla hasi zen. Lerroa egonkortua zen Oise eta Suitza artean, besteak beste V. armadak zaintzen zituen lerroak, horien artean euskaldunek. Hil anitz izan ziren gudu hartan. Alemaniako unitate batzuek gizonen %40 galdu zuten. Joffrek frantsesek munizio gabezia bat bazutela ere ondorioztatu zuen.
- **Irailaren 8a:** Errusiarrek Austriaren esku zegoen Przemysl herria (Galitzia, Polonia) hartu zuten, austriarrek indarrak Serbiaren kontra ezarri zituztelako. Austriarrek berreskuratu zuten urrian, baina berriz ere galdu azaroan.
- **Irailaren 8-13a:** Alemanek Masuriako lakuetak (Prusia ekialdea) gudua irabazi zuten, errusiarren aurka. Errusiarrak Niemen-era erretiratu ziren. Alemanak Poloniako lurretan sakon sartu ahal izan ziren.
- **Irailaren 12-azaroaren 22a: Itsasorako lasterketa.** Marneko gudutik landa, Oisetik Iparrerako itsasorako tarte zegoen jokoan. Bi aldeak ohartu ziren Aisnen egonkortuak ziren etsaiei oldartzeko bide bakarra, Oisen iparraldetik barna inguratzea zela. Beraz, gune hori hartzeko borroka hasi ziren. Hainbat gudu izan ziren lasterketa horren baitan, bereziki Arras-koa, Yser-koa eta Ypres-koa. Lasterketa horren ondotik, frontea Iparreko itsasotik Suitzaraino egonkortu zen, eta mugimendu gerla osoki bukatu eta posizio gerlari utzi zion lekua.
- **Urriaren 1-9a:** Arrasko gudua. Gudu bortitzak izan ziren Arras-en (Artois-ko hiriburua). Frantsesen armadak kolpe latzak hartu zituzten, hala nola 70. eta 77.

dibisioek. Halaber, alemanek Vimy herria hartu zuten. Frantsesen kontra-ofentsibatik landa, alemanak gelditu ziren.

- **Urriaren 10a:** Anberes (Belgika) alemanen eskuetan.
- **Urriaren 15-26a:** Yserko gudua. Alemanek ofentsiba bat hasi zuten belgikarren kontra, Frantziako Nord departamendua eta Flandria lotzen dituen itsas ondoko Yser ibaitxoan. Hamabi eguneko borroka batetik landa, belgikarrek Nieuport urtegiko urak zabaldu zituzten, eta horrek eragin uholdeei ihesi, alemanen aitzinamendua geldiarazi zuten.
- **Urriaren 23-azaroaren 22a:** Ypresko gudua. Aliatuak aitzina ari zirela, Ypres-en (Flandria) gelditu behar izan zuten, alemanen indarraren ondorioz. Alemanek Dunkerke eta Calais hiriak hartu nahi zituzten, ingelesei Frantziara eta Belgikara heltzeko bidea zailtzeko. Frantsesek eta ingelesek 100.000 soldadu galdu zituzten, eta alemanek 130.000. Horren ondorioz gelditu ziren alemanak gune hartan. Horrekin bururatu zen itsasorako lasterketa.
- **Urriaren 29a:** Erresuma Batuak blokeo ekonomikoa ezarri zion Alemaniari. Ondorioz, Alemaniarentzat eta Austria-Hungariarentzat ezinezkoa zen salgaiak ekarraztea.
- **Azaroaren 1a: Otomandar inperioak gerla deklaratu zien aliatuei.**
- **Azaroaren 6a:** Frantziak blokeo ekonomikoa ezarri zion Alemaniari.
- **Azaroaren 11:** Errusiarrek Przemysl inguratu zuten. Eskualde hartako ofentsibaren ondorioz, austriarrek San ibaiaren eta Karpatoak mendien gibelerara erretiratu behar izan zuten.
- **Abenduaren 2a:** Austria-Hungariak Belgrad hartu zuen.
- **Abenduaren 6a:** Alemanek Lodz, Varsovia inguruko hiri industrial, hartu zieten errusiarrei. Poloniako mugimendu gerla bukatu zen horrekin, eta posizio gerla hasi zen handik hamalau egunera.
- **Abenduaren 6a:** Armadako Auzitegiak indarrean ezarri zituzten.
- **Abenduaren 8a:** Falkland uharteetako gudua, Argentinako hegoaldeko puntako urretan. Britainiarrek alemanen Scharnhorst eta Gneisenau itsasontziak suntsitu zituzten. Hortik landa, alde guztien itsasontziak portuan egon ziren, eta ingelesek Alemaniaren blokeoa aise obratu ahal izan zuten.

- **Abenduaren 12a:** Austria-Hungaria errusiarren aurka nagusitu zen Limanova-Lapanov-en, Krakoviearen aitzinean.
- **Abenduaren 15a:** Frantziako armadak 45 urteko bi soldadu fusilatu zituen, frontean. Hiru egun lehenago epaitu zituzten eta hiltzera kondenatu, beren burua nahitara zauritzeagatik.
- **Abenduaren 15a:** Serbiarrek Belgrad berriz hartu zuten. Austriarrak Serbiako mugatik erretiratu ziren. Porrot handia izan zen haientzat.

1915

- **Urtarrilaren 9-14a:** Soissons-ko gudua. Hastapenean frantsesak aitzinatu ziren, baina 12an gibelera egiten hasi ziren. 14ean gelditu zuten, hasi lekuan. Baina 12.000 frantses hil ziren.
- **Urtarrilaren 22a:** Benedikto XV Aita Santua gerlaren kontra mintzatu zen.
- **Urtarrilaren 23a:** Karpatoak eskualdeko kanpainaren hastapena. Austriarrak Przemysl hiriaren berreskuratzea ahalegindu ziren, baina galtze handiak izan zituzten. Hala ere, errusiarrek Hungariara hurbiltzea ekidin zuten.
- **Urtarrilaren 31:** Alemanek gas pozoituak erabili zituzten lehen aldiz, Bolymov-en, errusiarren aurka.
- **Otsailaren 4a:** Itsaspeko gudua ofizialki hasi zen.
- **Otsailaren 7a:** Alemaniaren ofentsiba Mazures lakuetan. Errusiarrek izan ziren galtzaile, eta alemanek Ekialdeko Prusia osoa berenganatu zuten.
- **Otsailaren 15-Martxoaren 23a: Champagne eskualdeko gudua.** Gudu gogorrek izan ziren, baina bukaeran frantsesek ez zuten deus irabazi, eta 90.000 gizon galdu zituzten.
- **Otsailaren 19a:** Dardaneloetako espedizioa abiatu zen. Britainiarrek borroka bat irabazi nahi zuten, mendebaldeko frontea blokeatua zelako eta ekialdekoa galtzen ari zelako. Asia eta Europa bereizten dituen itsasadar hori estrategikoa zen Aliatuentzat, turkiarrak ahultzeko eta Grezia eta Bulgaria herri neutroei presio egiteko, Serbia sostenga zezaten eta Errusiari merkantziak helaraz ziezazkieten. Otsailaren 19an Dardaneloetako gotorlekuen bonbardatzen hasi ziren.
- **Otsailaren 29a:** Frantsesek Vauquois-ko muinoa hartu zuten.

- **Martxoaren 1a:** Itsas blokeoa alemanen kontra.
- **Martxoaren 22a:** Errusiarrek Przemysl eta hango gotorlekua hartu zituzten.
- **Martxoaren 26a:** Frantsesek Vosges mendilerroko Hartsmannwiller kaskoa hartu zuten, baina 100.000 gizon hil ziren.
- **Apirilaren 9a:** Frantsesek Eparges-eko gainak hartu zituzten, Hauts-de-Meusen. Baina gizon anitz galdu zuten horretarako, eta ezin izan zuten kasko hartatik urrunago joan.
- **Apirilaren 22a:** Ypresko bigarren gudua. Alemanek gas itogarriak erabili zituzten lehen aldiz, Flandrian.
- **Apirilaren 25a:** Aliatuek Gallipolira heldu nahi zuten, Dardaneloetako itsasadarrean, baina huts egin zuten, eta milaka soldadu hil ziren. Ondoko hilabeteak biziki gogorrak izan ziren aliatuentzat, gizon anitz hil zelako, ezin aitzinatuz ibili zirelako eta beroak eta egarriak ahultzen zituztelako.
- **Apirilaren 24-25:** Turkiarrek ehunka armeniar hil zituzten Istanbulen. Kaukasiar mendietan galtzaile izan ondoin, “barneko etsaia” aurkitu behar zuten, eta armeniarrek traidoretzat jo zituzten.
- **Maiatzaren 7a:** Alemanek Liverpool eta New York hirien arteko lotura egiten zuen Lusitania britainiar itsasontzia bota zuten. 1.198 hildako eragin zituen, horietatik 128 amerikar. Gertakari hark eragin handia izan zuen Amerikako Estatu Batuetako iritzi publikoan. Ez zen alemanek botatzen zuten lehen ontzia, baina azken hilabeteetan gero eta eraso gehiago egiten zuten, jasaten zuten blokeoak egiten zien trabaren ondorioz. Ez zen azken eraso izan. Helburua zen Ingalaterrari traba egitea beren salgaiak jasotzeko.
- **Maiatzaren 9a:** Frantsesek huts egin zuten, Artois-ko ofentsiban.
- **Maiatzaren 18a:** Errusiarrek Vanen irabazi zuten, Turkiaren eta Pertiaren arteko mugan, ia 200.000 armeniar zituen hirian.
- **Maiatzaren 23a: Italia gerlan sartu zen, aliatuen alde.**
- **Maiatzaren 25a:** Benedikto XV Aita Santua berriz ere mintzatu zen gerlaren kontra.
- **Maiatzaren 27a:** Armeniarren behin-behineko deportazio legea. Lege horrek armeniarren herri eta hiri osoak deportatzeko baimena ematen zuen. Hortik landa, herri osoak hutsarazi zituzten. 1922 arte, turkiarrek 1,5 milioi eta 2 milioi armeniar bitartean hil zituzten.

- **Ekainaren 3a:** Errusiarrek Przemysl-etik atera ziren, alemanen ofentsibaren ondorioz. Errusiarrek milioi bat gizon galdu zituzten.
- **Ekainaren 20a:** Errusiarrek Galitziatik atera ziren, alemanen ofentsibatik ihesi.
- **Ekainaren 22a:** Errusiarrek Lemberg-eko gotorlekuetatik atera ziren, borrokatu gabe.
- **Ekainaren 23a:** Isonzoko lehen guduen hastapena, italiarren eta austriarren artean. Italiarren galtzeak handiak izan ziren.
- **Uztailaren 18a:** Italiarrek huts egin zuten Isonzoko ofentsiban.
- **Agorrilaren 4a:** Errusiarrek Ivangorod-eko gotorlekua utzi zuten. Biharamunean, alemanek Varsovia hartu zuten.
- **Agorrilaren 25a:** Alemanek Brest-Litovsk hartu zuten. Handik egun batzuetara, ez zegoen gehiago errusiarrik Vistula ibaiaren ezker aldean.
- **Irailaren 5-8a:** Zimmerwald-eko (Suitza) konferentzia. Besteak beste, Errusiako, Frantziako, Italiako, Ingalaterrako eta Alemaniako sozialista internazionalistak bildu ziren, bakearen alde. Lenin gerlaren kontra mintzatu zen, argiki. Bilera hark ez zuen oihartzun handirik izan, zentsuraren ondorioz. Gainera, sozialista guztiak ez ziren argiki gerlaren aurka agertu.
- **Irailaren 16a:** Erich Ludendorff aleman jeneralak Courlande eta Vilnius hartu zituen.
- **Irailaren 22a: Bulgaria gerlan sartu zen, Aliantza Hirukoitzeko alde.**
- **Irailaren 25a:** Artois eta Champagne-ko ofentsibak. Sarraskiak izan ziren. Frantsesek ez zuten aitzinatzea lortu.
- **Irailaren 25-Urriaren 6a: Champagne eskualdeko bigarren gudua.** Frantsesen aitzinamendua biziki txikia zen, eta 140.000 gizon galdu zituzten.
- **Urriaren 5a: Bulgaria gerlan hasi zen Serbiaren aurka. Aliatuak Salonikara lehorreratu ziren.** Aliatuek Gallipoli galdu ondoan, Balkanak alemanen esku erortzea ekidin nahi zuten. Bulgaria gerlan sartuz, soldaduak Salonikara igortzeko aitzakia izan zuten, Grezia eta Errumania alemanen alde gerlan sar zitezten ekiditeko. Greziako erregeak ez zien Salonikara lehorreratzeko baimenik eman, Alemaniaren aldekoa baitzen. Aliatuek ez zioten kasurik egin eta lehorreratu ziren. Salonikako baldintzak biziki gogorrak izan ziren soldaduentzat. Han ibili zen A.I. *Eskualduna*-n idatzi zuena ere.

- **Urriaren 6a:** Austriarrek, alemanek eta bulgariarrek Serbiaren kontrako ofentsiba hasi zuten. Bulgariarrek Belgrad hartu zuten.
- **Urriaren 19a:** Italiak gerla deklaratu zion Bulgariari.
- **Urriaren 22a:** Bulgariarrek Uskub-en sartu ziren, eta serbiarrei Salonikarako bidea moztu zieten.
- **Urriaren 29a:** Frantzian, Vivianiren gobernuak dimititu zuen. Briand bihurtu zen Kontseiluko presidente.
- **Azaroaren 1a:** Frantsesek beren ofentsiba gelditu zuten, Champagne eta Artois aldean.
- **Abenduaren 6-8a:** Chantillyko konferentzia.

1916

- **Urtarrilaren 8-9a: Aliatuak Dardaneloetatik joan ziren.** Dardaneloetako guduek ez zieten ezer ekarri, 180.000 gizon galdu zituzten (gehienak australiarrek) eta Bulgaria Ardatzaren alde sartu zen gerlan.
- **Urtarrilaren 29a:** Zepelinen erasoak Parisen. 26 lagun hil zituzten, eta gerla gelditu behar zelako ustea gero eta gehiago zabaltzen hasi zen intelektuaren artean.
- **Otsailaren 16a:** Errusiarrek Erzeroum hartu zieten turkiarrei.
- **Otsailaren 21a: Verduneko guduaren hastapena.** Alemanek eraso egitea erabaki zuten, leku estrategikoa zelako. Inguru haietan zen, besteak beste, Douaumont-eko gotorlekua, eta beste hogeita bat gotorleku, inguruan. Lehenago ere alemanek hainbat ahalegin egin zituzten gotorleku horiek hartzeko, baina frantsesek Saint-Mihiel inguruan atxikitzea lortzen zuten. 1915eko agorriletik hara, ordea, gotorleku haietan ez zegoen gehiago armarik, Joffre jeneralak arma haiek beste norabait igortzea erabaki zuelako. Gainera, frantsesek indar guztiak Somme eskualdera bideratuak zituzten, han ofentsiba handi bat prestatzeko. Otsailaren 21eko goiz hartan, alemanek eraso gogorra hasi zuten Verdun inguruan, milioi bat obus botaz eta bost minuturo pertsona bat hilez.
- **Otsailaren 23a:** Frantsesek Wavrille oihana utzi zuten; alemanak Verdunetik hamar kilometrora baizik ez zeuden, eta sarraskia egin zuten.
- **Otsailaren 25a:** Alemanek Douaumont hartu zuten, frantsesen erresistentziarik gabe.

- **Martxoaren 4a:** Benedikto XV Aita Santuak “Europaren suizidioa” aipatu zuen.
- **Martxoaren 9a:** Alemaniak gerla deklaratu zion Portugalari.
- **Apirilaren 10a:** Bezperan, alemanek Meuse ibaiaren bi aldeetan eraso bortitzak egin ondoren, Corbeaux eta Cumières oihanak eta Mort-Hommeko ipar malda okupatu zituzten. Baina Mort-Homme kaskoa frantsesen esku gelditu zen, eta alemanek gizon antz galdu zuten. Pétain jeneralaren ospea handitzen hasi zen.
- **Apirilaren 24-30a:** Sozialista Internazionalisten konferentzia Kienthalen, bakearen alde.
- **Apirilaren 29a:** Britainiarrek Kut el-Amaran huts egin zuten, Mesopotamian.
- **Maiatzaren 6a:** Djemal Pacha agintari turkiarrak 21 siriarrak eta libanoar exekutatu zituen.
- **Maiatzaren 15a:** Austria-Hungariak Trentinen huts egin zuen.
- **Maiatzaren 27a:** Bulgariarrek Greziako muga gainditu zuten, eta Rupel-eko gotorlekua hartu zuten, greziarren erresistentziarik gabe.
- **Maiatzaren 31:** Britainiarren eta alemanen arteko itsas gudua Jutlandian, Norvegia eta Danimarkaren artean. Alemanek ofentsiba huts egin zuten.
- **Ekainaren 1a:** Alemanek Thiaumont-eko eta Vaux-ko gotorlekuei eraso egin zieten, eta hartu zituzten.
- **Ekainaren 4a:** Errusiarren ofentsiba bat hasi zuten Galitzian (Polonia), Pripet eta Errumaniako mugaren artean, Broussilovek gidaturik. Austriarrek gibelera egin zuten, kilometro andana batez.
- **Ekainaren 24a:** Aliatuek lehen bonbardaketak egin zituzten, Sommeko gudua prestatzeko.
- **Ekainaren 30a:** Errusiarrek Karpatoak mendien azpira heldu ziren, Bukovina osoa harturik. Baina errusiarren ofentsibak ez zuen uda osoan iraun, eta ahulduz joan zen. Irailean gelditu zuten ofentsiba, baina Galitzia eta Bukovina osoak berreskuraturik.
- **Uztailaren 1a: Sommeko guduaren hastapena.** Frantsesek eta britainiarrek eraso egin zuten. Baina alemanek beren defentsa ongi prestatu zuten, eta aliatuen eraso ez zen nahi bezala pasatu. Egun hartan aliatuek eta alemanek 20.000na soldadu galdu zituzten. Irailerako, aliatuek 82.000 soldadu galdu zituzten, 900 metroz aitzinatzen. Aspaldi prestatzen ari ziren eraso ez zen nahi bezala joan, frantsesak indar gehienak Verdunen ezartzen ari zirelako. Halaber, alemanek indar batzuk kendu behar izan

zituzten Verdunetik Somme eskualdera bideratzeko, eta hori mesede izan zen aliatuentzat, Verdun berreskuratzeko.

- **Uztailaren 20a: Errumania gerlan sartu zen, aliatuen alde.** Hungariari egin zion eraso, eta Karpatook mendietako leporaino heldu zen.
- **Uztailaren 30a:** Aita Santua berriz ere gerlaren kontra mintzatu zen.
- **Agorrilaren 8a:** Italiarrek Lisonzon irabazi zuten eta Gorizia hartu.
- **Agorrilaren 29a:** Hindenburgek eta Ludendorffek hirugarren goi agintaritzza alemana eratu zuten.
- **Irailaren 3a:** Somme eskualdeko hirugarren fasea hasi zen.
- **Irailaren 13a:** Joffrek erabaki zuen Verdun eskualdean galdutako eremuen bila abiatu behar zutela.
- **Irailaren 15a:** Somme-ko guduan, ingelesek tankeak edo gudu-orgak erabili zituzten lehen aldiz.
- **Irailaren 18a:** Errusiarrek Galiziako ofentsiba gelditu zuten.
- **Irailaren 23a:** Aliatuek Douaumont gotorlekua berreskuratzeko eraso abiatu zuten, eta helburua lortu. Vauxko gotorlekuan ez zuten halako aitzinamendurik egin.
- **Irailaren 24a:** Greziako Venizelosek gobernu errepublikarra sortu zuen Salonikan, eta Aliatuek onartu zuten. Herria bitan zatiturik gelditu zen, Atenasen zegoen errege gobernuaren eta Salonikakoaren artean.
- **Urriaren 24a:** Aliatuek Douaumont-eko gotorlekua berriz hartu zuten.
- **Azaroaren 2a:** Frantsesek Vaux-eko gotorlekua berreskuratu zuten. Honekin, Verdun eskualdean berriz hartu zuten gaina, eta alemanen ofentsiba bukatu zen. 162.000 frantses hil edo desagertu eta 216.000 zauritu ziren, eta 350.000 aleman zauritu, desagertu edo hil. Egun hartatik landa, gerla gelditzearen kontrako iritziak indarra hartu zuten; ordu arte hildako guztiak eta ordaindutako guztia alferrik izanen zirela zioten, baldin eta bake akordio bat egiten baldin bazen, gerla irabazi gabe. Alemanentzat porrot handia izan zen Verduneko ofentsibak huts egitea.
- **Azaroaren 18a: Sommeko gudua bukaera.** Aliatuak 10-40 kilometroz aitzinatu ziren, baina orotara 1,25 milioi gizon hil ziren.
- **Azaroaren 21a:** Frantzisko Josef Austria-Hungariako enperadorea hil zen, eta Charles Iak hartu zuen haren kargua.
- **Abenduaren 3a:** Lloyd George, Ingalaterrako Lehen Ministro.

- **Abenduaren 1a:** Aliatuak Pireon lehorreratu ziren, eta Atenas mehatxatu zuten. Baina ez zuten indarririk aski eta greziarrek gibelera igorri zituzten. Erregearen armadak Venizelosen jarraitzaileak hil zituen.
- **Abenduaren 6a:** Alemanek Bukarest hartu zuten. Errumaniarrak alde guztietatik inguraturik zeuden irailatik hara, eta frantsesek eta errusiarrek ezin izan zituzten lagundu. 310.000 errumaniar hil ziren gerlan sartu zirenetik, eta Alemaniak eta Austria-Hungariak Errumania okupatu zuten.
- **Abenduaren 18a: Verduneko guduaren bukaera.**
- **Abenduaren 27a:** Joffre, Frantziako mariskal izendatu zuten.

1917

- **Urtarrila:** Lehen grebak, Frantzian.
- **Urtarrilaren 9a:** Alemaniak itsas gudu handia abiatu zuen.
- **Urtarrilaren 22a:** Amerikako Estatu Batuetako presidente Wilson “garaipenik gabeko bakearen” alde mintzatu zen.
- **Otsailaren 1a:** Alemanek itsas gudu osoa hasi zuten. Alemanek amerikarren ontzi anitz bota zuten, kalteak ikaragarriak ziren, hilak ere baziren, eta iritzi publikoa gero eta gehiago gerlan hastearen aldekoa zen.
- **Otsailaren 14a:** Grebak Petrogradeko lantegietan. Azken hilabeteetan egoera mintzen ari zen Errusian, eta armadaren baitan.
- **Otsailaren 24a:** Petrogradeko manifestazioak gero eta handiagoak.
- **Otsailaren 24a:** Britainiarrek Zimmermann Alemaniako atzerri ministroak Mexikoko enbaxadoreari igorri gutun bat atzeman zuten bidean. Mexiko gerlan sartzeko aukera aipatzen zuen, eta Amerikako Estatu Batuetako zenbait eremu Mexikori itzultzekoa. Estatu Batuek, lehen aldiz, beren lurraldea hunkiturik ikusi zuten.
- **Otsailaren 24a:** Britainiarrek Kut hartu zuten.
- **Otsailaren 25a:** Boltxebikeek greba orokorra antolatu zuten Errusian. Langileen %90 greban zegoen. Gerlaren aurkako oihuak entzun ziren.
- **Otsailaren 26a: Errusiako gobernuak Duma desegin zuen.**

- **Otsailaren 27a:** Tsarraren armadaren baitan, altxaldiak izan ziren, eta oldartuekin bat egin zuten. Neguko jauregia hartu zuten eta Dumaz jabetu ziren. Egun hartan berean hauteskundeak egin ziren, sobiet bat hautatzeko.
- **Martxoaren 3a:** Nicolas II tsarrak kargua utzi zuen.
- **Martxoaren 11:** Britainiarrek Bagdad hartu zuten.
- **Martxoaren 27a:** Sobietek bakerako deia egin zuten, eta Stockholm-en konferentzia bat antolatu.
- **Apirilaren 2a:** Wilsonek iragarri zuen gerlan sartzea erabaki zuela. Alemanek abiatu itzasoko ofentsibak eta Errusiako iraultzak eragina izan zuten erabaki horretan.
- **Apirilaren 3a:** Lenin Errusiara itzuli zen.
- **Apirilaren 6a:** Amerikako Estatu Batuetako kongresuak gerlan sartzea erabaki zuen.
- **Apirilaren 9a:** Britainiarren ofentsiba Artois-en, Arras eta Lens artean.
- **Apirilaren 16a:** **Nivelleren ofentsibaren hasiera, Andereen Bidean.** Alemanak ahul zirela uste zuen; baina alemanek arrazoi taktikoengatik egin zuten gibelera. Gauzak ez ziren ongi hasi frantsesentzat, eta bi eguneko epean 30.000 soldadu hil ziren. Hala ere Nivellek ofentsiba jarraitzeko eskatu zuen, nahiz eta oraino hil gehiago izan zuten. Iritzi publikoan biziki eragin txarra izan zuen.
- **Apirilaren 17a:** Aubérive-en, soldaduek ez obeditzea erabaki zuten, masiboki.
- **Maiatzaren 9a:** Serbiarren ofentsiba Cerna inguruan, Monastir azpian. Hil anitz ukan zuten.
- **Maiatzaren 15a:** Pétainek Nivelle ordezkatu zuen.
- **Maiatzaren 20a:** **Frantziako armadaren baitako altxaldien hastapena.** Andereen Bideko sarraskiaren eta “alferrikako hilen” ondorioz, soldadu andana batek ez zuen obeditu nahi.
- **Maiatzaren 26a:** Zepelinen lekua hartu zuten Gothas airekoen bonbardaketak Erresuma Batuan, agorrilaren 24a arte. 254 hil ziren, gehienak emazteak eta haurrak.
- **Ekainaren 12a:** Greziako Constantinek abdikatu zuen, Frantziako tropak bertan sartu ondoan eta erregea kargua uztera eta haren seme Alexandreri ematera behartu ondoan.
- **Ekainaren 26a:** Lehen soldadu amerikarrak Saint-Nazaire-era heldu ziren. Baina hastapenean, espero baino anitzez gutxiago izan ziren.

- **Ekainaren 29a:** Grezia gerlan sartu zen, aliatuen alde.
- **Uztailaren 1a:** Brousilov jeneralaren ofentsiba, Galitzian.
- **Uztaila-agorrila:** Alemaniako itsas armadakoen altxaldiak.
- **Uztailaren 6a:** Arabiarrek Akaba hartu zuten, britainiarren sostenguekin.
- **Uztailaren 11-Azaroaren 6a:** Ypres-ko hirugarren gudua (Passchendaele-ko gudua). Britainiarrek Flandria berriz hartzeko ahalegina egin nahi izan zuten, eta eraso egin zuten; alemanak biziki ongi prestatuak ziren, ordea, eta eraso ez zen britainiarrek nahi bezala hasi. Azkenean, gudua britainiarrek irabazi zuten, baina 150.000 gizon hil zitzaizkien.
- **Uztailaren 13a:** Alemaniako kantziler Bethmann-Hollweg-ek kargua utzi zuen, eta Michaëlis-ek hartu zuen haren lekua.
- **Uztailaren 19a:** Alemanek errusiarrak Galitziatik lekutzera behartu zituzten. Reichstag-eko gehiengoak bakearen aldeko mozio bat onartu zuen.
- **Uztailaren 27a:** Kerenski, gobernuko behin-behineko buru.
- **Agorrilaren 7a:** Miguel Almereyda *Le Bonnet Rouge* aldizkari anarkistako zuzendaria atxilotu zuten. Hura eta Bolo Pacha iruzurgilea inplikatuak ziren afera batekin zerikusia izatea leporatu zioten Caillaux ministro ohia. Horrez gain, bakezaleekin biltzea leporatu zioten Caillaux-eri. Handik laster Malvy Barne ministroak kargua utzi behar izan zuen, Bonnet Rouge aldizkariari diru laguntzak emateagatik. Horrez gain, alemanei Andereen Bideko erasoaren planak pasarazi izana ere leporatu zioten. Akusazio horiek guztiak frogarik gabekoak ziren.
- **Agorrilaren 15a: Aita Santuak bake proposamena egin zuen.** Clémenceau Aita Santuaren aurka agertu zen, alemanen aldekoa zela salatuz.
- **Agorrilaren 21a:** Alemanek Riga hartu zuten.
- **Agorrilaren 25a-Urriaren 3a:** Serbiarren eta bulgariarren arteko gudua Käimaktchalan hartzeko. Serbiarrek tropen bi herenak galdu zituzten.
- **Irailaren 9a:** Sozialisten Internazionalaren konferentzia antolatu nahi zuten Stockholm-en, baina ez zuten lortu.
- **Urriaren 15a:** Frantziak Mata Hari exekutatu zuen, espioitza egitea leporaturik. Strip-tease dantzari ezagun hori aleman batez maitemindu zen, eta horregatik, espioitza egitea leporatu zioten. Baina, funtsean, ez zuela halakorik egin argitu zen gerora.

- **Urriaren 24a:** Pétain gidari zela, Malmaison-eko gotorlekua hartu zuten, Andereen Bidetik hurbil.
- **Urriaren 24a-Azaroaren 5a:** Italiaren porrota Caporetto-ko guduan. Bezperan, austriarrek eta alemanek ofentsiba gogor bat hasi zuten, Isonzo inguruan, Caporetto herri ttipian. 24ean, goizeko 2etan, eraso gogorra hasi zuten, eta eguna argitzerako italiar tropak suntsituak ziren eta alemanak eta austriarrak nagusituak. Bi egun geroago, San Daniele, Foni eta Matajur hartu zituzten, eta hogei kilometroz aitzinatu ziren. 27an, Cividale hartu zuten, 29an Udine. Italiarrak gibelka joan ziren.
- **Urriaren 25a:** Errusian, Leninek boterea hartu zuen.
- **Urriaren 28a:** Frantziako X. armada Italiara joan zen, Foch buru zela.
- **Urriaren 29a:** Caporettoko porrotaren ondorioz, Italiako Kontseiluko presidentek kargua utzi zuen eta Vittorio Emanuele Orlando jarri zen kargu hartan.
- **Urriaren 31:** Britainiarren ofentsiba Gaza eskualdean. Beersheban hartu zuten.
- **Azaroaren 2a:** Aliatuen tropak borrokan sartu ziren Italian.
- **Azaroaren 3a:** Austria-Hungariak Tagliamento zeharkatu zuen, Italian. Italiarrek, Caporettoko porrotetik landa 140 kilometroz gibelerara egin behar izan zuten, eta Venezia ipar-ekialdean gelditu ziren.
- **Azaroaren 5-7a:** Rapallo-ko konferentzia, aliatuen artean. Aliatuen arteko aitzindaritza baten sortzea erabaki zuten.
- **Azaroaren 7a:** Britainiarrek Gaza hartu zuten, eta turkiarrak haizatu. Arabiarrek, britainiarren laguntzarekin, turkiarrak Palestinatik igorri zituzten.
- **Azaroaren 7a:** Leninek boterea hartu zuen Petrograden.
- **Azaroaren 10a:** Erresuma Batuko armada Plumer jeneralaren esku.
- **Azaroaren 12a:** Austriak eraso bat egin zuen Italian. Feltre hartu zuen, baina Grappan gelditu behar izan zuten. Azken egunetako borroketan, Italiak 40.000 hil ukan zituen eta 90.000 zauritu.
- **Azaroaren 16a:** Clémenceau Frantziako Lehen Ministro.
- **Azaroaren 20a:** Britainiarren tankeen eraso alemanen aurka, Cambrain.
- **Abenduaren 7a: Errusiaren eta Alemaniaren arteko su-etena.**
- **Abenduaren 9a:** Robert Allenby jeneral britainiarrak Jerusalem hartu zuen.

- **Abenduaren 9a:** Errumaniak eta Alemaniak armistizioa izenpetu zuten, Focsanin, errumaniarren armada suntsitua izan ondoren.
- **Abenduaren 15a:** Brest-Litovsk-eko armistizioa Alemaniaren eta boltxebikeen artean.

1918

- **Urtarrilaren 8a:** Wilsonen “14 puntuak”.
- **Urtarrilaren 14:** Grebak Austria-Hungarian, ogia eta bakea eskatzeko.
- **Urtarrilaren 16a:** Grebak Budapestera hedatu ziren.
- **Urtarrilaren 28a:** Alemaniako espartakisten eta komunisten greba deialdia, bakearen alde. Milioi bat manifestari izan ziren. Polizia gogor oldartu zen eta hainbat manifestari hil zituen.
- **Otsailaren 1a:** Austria-Hungariako marinel batzuek bandera gorriak zabaldu zituzten, janariaren kalitate txarraren kontra eta permisione faltaren kontra protestatzeko. Protesta gogorrak izan ziren hastapenean, eta gero ezitu ziren.
- **Otsailaren 18a:** Alemanek ofentsiba bat hasi zuten Errusian, baina erresistentziarik ez zutenez aurkitu, aitzina segitu zuten.
- **Otsailaren 18a:** Poloniarrek greba egin zuten, Austria-Hungariako enperadorearen aurka.
- **Martxoaren 2a:** Alemanak Kievera heldu ziren, eta zenbait egunen buruan Petrogradeke mugara heldu ziren.
- **Martxoaren 3a: Brest-Litovsk-eko ituna, Alemaniaren eta errusiarren artean.** Errusiak Finlandia, Courlande, Ukraina eta eremu baltiko osoa utzi zion Alemaniari. Halaber, Austriak eta Alemaniak Polonia hartu zuten, baita Bielorrusiaren zati bat ere. Orotara, Errusiak bere ikatzaren %90 eta industriaren erdia Austriaren eta Alemaniaren esku utzi zuen. Horren ondorioz, bestalde, aliatuen eta Errusiaren arteko harremanak aldatu ziren. Baina, bereziki, Ingalaterrak eta Frantziak tropak berrantolatu behar zituzten, alemanek mendebaldera igorriko zituztenei buru egin ahal izateko. Britainiarrek itsaso Zuria, Kaukasiar mendiak eta Erdialdeko Asia zaindu zituzten; frantsesek Ukraina eta Polonia zaindu zituzten.

- **Martxoaren 5a:** Errumaniaren eta Erdialdeko Inperioen arteko bake hitzarmena, Bufteako bakea. Errumaniak eskualde anitz galdu zituen.
- **Martxoaren 8 eta 11:** Paris bonbardatua. 100 hil eta 150 zaurituz gora.
- **Martxoaren 21a: Alemanen ofentsibaren hasiera, Picardie eskualdean.** Alemanek presa zeukaten, bazekitelako amerikarrak helduko zirela. Suntsitze estrategian hasi ziren, eta britainiarren kontra oldartzea erabaki zuten, armada hura ikusten zutelako ahulen. Mantxara heltzeko bidea erraztu nahi zuten. Indarrak Arras eta Saint-Quentin artean ezarri zituzten. Britainiarrak ustekabean harrapatu zituzten.
- **Martxoaren 25a:** Foch jeneral nagusi izendatua.
- **Martxoaren 29a:** Alemanek Parisko Saint-Gervais eliza bonbardatu zuten. 88 hil.
- **Apirilaren 5a:** Alemanak Amiens-era heltzeko heinean ziren, baina haien aitzinamendua moteldu zen, aliatuen erresistentziaren ondorioz, nahiz eta hauek anitz gibelatu behar izan zuten azken egunetan.
- **Apirilaren 8-11:** Europa Erdialdeko Nazio Zapalduen Kongresua, Erroman. Vienaren kontra altxatu ziren, independentzia galdez.
- **Apirilaren 9a:** Alemaniaren ofentsiba Flandrian, Dunkerque eta Calais-ko portuetara heltzeko asmoz.
- **Apirilaren 14a:** Amerikarren, ingelesen eta frantsesen armaden agintaritza bakarra adostu zuten. Foch jeneralak hartu zuen horren ardura.
- **Apirilaren 24a:** Alemanek Kommel mendia hartu zuten, Flandrian. Ypres hegoaldean hasi zuten eraso, baina britainiarren erantzunaren ondorioz ez zuten anitzez gehiago aitzinatzea lortu.
- **Maiatzaren 1a:** Manifestazio bat izan zen Pragan, nazioen autodeterminazioaren alde.
- **Maiatzaren 7a: Bucaresteko bakea Errumaniaren eta Inperio Zentralen artean.** Baina Inperio Zentralen artean kalapitak hasi ziren lurraldearen banaketa egiterakoan, denek zati bat nahi baitzuten.
- **Maiatza:** Grebak Frantziako lantegietan, gerlaren eta bizi garestiaren aurka.
- **Maiatzaren 11:** Eslovakiako soldadu batzuk altxatu ziren, Rimavska-Sobotan. Udan, 250.000 desertorek armada utzi zuten.
- **Maiatzaren 27-ekainaren 5a: Alemanen ofentsiba Andereen Bidean.** Flandriako eta Arras eskualdeko erasoak ez zirenez nahi bezala joan, hirugarren ofentsiba bat

hasi zuten, eta frantsesak ustekabeen harrapatu zituzten. Marne aldera aitzinatzen hasi ziren.

- **Maiatzaren 30a:** Alemanek Soissons eta Château-Thierry okupatu zituzten.
- **Ekainaren 2a:** Austria-Hungariako armadan beste batzuk altxatu ziren, Kragujevac-en (Serbian). Altxatzen ziren soldaduak exekutatu zituzten, hamarnaka.
- **Ekainaren 4a: Alemanak ia Parisera helduak ziren.** Diputatuak kezkatuak ziren, baina alemanen indarrak ahultzen ari ziren. Gainera, amerikarrak tropa anitz ekartzen hasi ziren.
- **Ekainaren 11:** Mangingek alemanen ofentsiba geldiarazi zuen.
- **Ekainaren 15a:** Austriarrek italiarren kontrako ofentsiba egin zuten Piave inguruan eta Asiago eskualdean. Italiarrak nagusitu ziren.
- **Ekainaren 15-18a: Alemaniaren ofentsiba eta frantsesen kontra-ofentsiba Champagne eskualdean.** Château-Thierry, Reims eta Tahure artean izan zen.
- **Uztailaren 13a.** Iraultza hasi zen Alemanian. Reichstag-ak diru partida gehiago onartu zuen gerlarako, eta horrek ordurako sutan zegoen karrikako giroa are gehiago berotu zuen. Soldadu anitzek gerlara itzultzeari uko egin zioten, gerla galtzeko arriskua ikusten zutelako. Iraultzarako deia egin zuten.
- **Uztailaren 17a:** Familia inperialaren sarraskia, Ekaterinenbourg-en.
- **Uztailaren 18a:** Frantsesen eta amerikarren kontra-ofentsiba, eta Marneko bigarren garaipena. Alemanak gibelatzera behartuak izan ziren.
- **Uztaila:** Britainiar langileak greban.
- **Agorrilaren 4a:** Britainiarrek Bakou okupatu zuten, eta turkiarrek 17an bota zituzten berriz. Leku estrategikoa zen, Europako petrolio ustiapen gune handiena baitzen.
- **Agorrilaren 8a: Alemanentzat “egun beltzena” izan zen.** Frantsesek eta britainiarrek kontra-ofentsiba egin zuten Montdidier-en. 200.000 aleman atxilotu zituzten. Aisne eskualdean, Manginen ofentsibaren ondorioz, alemanek gibelera egin behar izan zuten eta maiatzaren 27tik hartu zituzten leku guztiak utzi. Somme eskualdean ere gibelera egin zuten alemanek.
- **Agorrilaren 18a-Irailaren 4a: Frantsesen eta britainiarren ofentsiba Somme eskualdean.**

- **Irailaren 15a:** Frantziako armadak, serbiarren, italiarren, greziarren, senegaldarren, aljeriarren, indotxinarren eta beste zenbait kolonietako soldaduen laguntzarekin, Ekialdeko ofentsiba hasi zuen. Hamabosteko epean, bulgariar armada garaitu zuten.
- **Irailaren 19a:** Britainiarrek Meggidoko gudua irabazi zuten, eta horri esker Damaskorako bidea zabaldu zitzairen. Urrian, britainiarrek Damasko eta Alep kontrolpean zeuzkaten.
- **Irailaren 26-28: Aliatuen ofentsiba Champagne-etik Flandriara.**
- **Irailaren 29a: Salonikako armistizioa, Bulgariaren, Erresuma Batuaren eta Frantziaren artean.**
- **Urriaren 3a:** Bulgariako Ferdinand tsarrak kargua utzi eta Boris III semeari eman zion.
- **Urriaren 4a:** Alemaniak armistizioa galdetu zion Amerikako presidenteari.
- **Urriaren 8a:** Frantsesak Sofiara eta Belgradera heldu ziren.
- **Urriaren 10a:** Frantses tropak Cambraín sartu ziren.
- **Urriaren 14a:** Britainiarrek Ypres askatu zuten.
- **Urriaren 17a:** Britainiarrek Lille askatu zuten.
- **Urriaren 24a:** Italiarren ofentsibaren hasiera, Piave eskualdean, austriarren aurka. Aitzineko hilabeteetan, austriarrak ahultzen ari ziren, janari eskasez, eta gero eta gehiago ziren desertore egin ziren txekiarrek, eslovakiarrak edota poloniarrek.
- **Urriaren 24a:** Hungariarren independentzia.
- **Urriaren 26a:** Austria-Hungariako soldaduen altxaldiak izan ziren.
- **Urriaren 27a:** Italiarren garaipena, Vittorio Veneton. Italiarrak galduaren berreskuratzen hasi ziren. Handik laster, Trento eta Udine berreskuratu zituzten.
- **Urriaren 28a:** Txekiar errepublika sortu zen.
- **Urriaren 29a:** Kroaziaren eta Esloveniaren independentzia.
- **Urriaren 30a:** Greba eta manifestazio handiak izan ziren Budapesten, aitzineko egunetatik. Egun hartan, manifestariek eraikin ofizialak hartu zituzten. Austria-Hungariako nazioak bereizi ziren. Eslovakiarrak Txekiako errepublikari juntatu zitzaizkien, errumaniarrek Transilvania Errumaniarekin lotzeko eskaera egin zuten, Voivodineko serbiarrek serbiarren, esloveniaren eta kroaziarren erresumarekin bat egin nahi izan zuten.

- **Urriaren 30a:** Ingelesek Moudrosko armistizioa izenpetu zuten Turkiarekin, Ekialde Ertainean lortu garaipenen ondorioz.
- **Azaroaren 3a:** Villa Jüstiko armistizioa izenpetu zuten, Austria-Hungariarekin. Honekin batera, inperioa desagertu zen.
- **Azaroaren 3a:** Alemaniako Iraultza, Kielen. Marinelek itsasora ateratzeari uko egin zioten. Ondoko egunetan grebak are handiagoak izan ziren, eta protesta mugimenduak Alemania osora zabaldu ziren.
- **Azaroaren 4a:** Austriako Errepublika sortu zen.
- **Azaroaren 7a:** Bavariako Louis III boteretik kendu zuten, eta Kurt Eisnerrek egin zuen Bavariako lehen gobernu sozialista.
- **Azaroaren 7a:** Poloniaren independentzia.
- **Azaroaren 9a: Gilen IIk abdikatu zuen. Weimarko errepublika proklamatu zuten.**
- **Azaroaren 11: Rethondesko armistizioa.** Alemaniako errepublikako agintari berriak Compiègne-eko oihanera joan ziren eta armistizioa izenpetu zuten. Goizeko 11etan jo zuten ezkilek horren berri emateko.
- **Azaroaren 11: Austriako Charles Iaren abdikazioa.**
- **Azaroaren 12a:** Austriako errepublika proklamatu zuten.
- **Azaroaren 14a:** Txekoslovakiako errepublika.
- **Azaroaren 17a:** Hungariako errepublika.
- **Azaroaren 24a:** Estrasburgo askatu zuten.

Eskualduna-ko idazleen erregimentuak

49. Infanteria Erregimentuaren ibilbidea

Baionako Infanteria Erregimentuaren ibilbidea, gerla hasi zenetik bururatu arte.

Noiz	Non	Zer
1914/8/2	Baiona	Mobilizazioa
1914/8/7	Baiona	Abiatzea, Toul-era buruz.
1914/8/9	Mont-le-Vignoble	18 CA, 36 DI, 71. Brigada eta II armadaren parte. Trenean.
